

opusdei.org

Ez dut uste hitzik aurkituko nukeenik San Josemariaren kanonizazioan bizi nuena adierazteko

“Hermanas Josefinas”
kongregazioak Lankidetzarako
Ingeniariak-en laguntza
jasotzen du

2005 Mar 11

Mexikoko “Hermanas Josefinas”
Kongregazioko Maria Inmaculada

Probintziako Superiorarekin, Miriam Bonilla, ari gara hitz egiten.

Sor Miriam, mintza gaitzazu Kongregazioari buruz.

Mexiko, AEB, Erdialdeko Amerika, Venezuela, Puerto Rico, Txile eta Angolan ari gara lanean. Karitate lanetan ibiltzen gara: gaixoekin ospitaletan; erietxetan; osasun zentroetan; zahar eta umezurtz etxeetan; haurtzaindegietan; haur jangeletan; indigenekin misioetan; Angolako misioetan; ikastetxeetan; erizaintza eta hezitzaile eskoletan; mintegietan; emakumeen heziketarako zentroetan eta AEBetan etorkinentzat harrera zentroetan. Gaur egun ia 700 erlijioso gara.

Lankidetzarako Ingeniariak erakundeko fondoak zertara zuzentzen dituzue?

Giza heziketa eta heziketa erlijioso eta kristauko zentroetara, batez ere

behar gehiago dagoen lekuetan.
Emaitzak garbiak dira: batez ere,
serorak berak gehiago jabetzen dira
beren bokazio-erantzunaz,
eginkortasun handiagoa lortzen da
misioetan, eta apostolutza
desberdinetan lan egiteko bokazioak
bilatzeko bideak ditugu.

Gogoratzen ahal duzu onuradunen pasadizoren bat?

Noski baietz. Adibidez, neska batzuk
prostituzio bizitza eramaten zuten ez
zutelako beste diru konponbiderik.
Gero ezagutu zuten San Jose Zentro
Bokazionalean lantegi josketa,
Lankidetzarako Ingeniariak bitartez
lortutako makineriarekin ireki zena,
eta honek lan duin bat ikasten
lagundu zien eta bizitzeko bide
duinagoa. Rivas ikastetxean, Buenos
Airesen, ikasleek asko eskertu dute
beste aukera batzuk eman
zaizkielako etorkizun itxaropenaz
beren ikasketak bukatzeko.

Jakin dut parte hartu zenuela San Josemariaren kanonizazioan San Pedro plazan. Nola ezagutu zenuen Opus Dei?

Lankidetzarako Ingeniariak erakundeko Opus Deiko kide baten bitartez; proiektu batzuetan topatu ginen. Fundatzailearen bizitzari buruzko liburuak, eta haren idatzi ugariak eta aberatsak irakurriz, neukan iritzia aldatu nuen. Baina oraindik garrantzitsuagoa izan zen ezagutu nuen bere semeen testigantza. Espiritualitatea ados dago semeek bizitzen dutenarekin.

Zer gogorapen dituzu urriaren 6etik buruz?

Hain berezia izan zen, ez dut uste hitzik aurkituko nukeenik han bizi nuena adierazteko. Neure buruari bakarrik esaten nion: hau lurrean bada, zer zeruan? Asko liluratu ninduen espiritualki zegoen komunikazioa nahiz eta hizkuntzak,

kulturak, kontinenteak eta adinak asko izan. Kutsatasun bat zegoen eta ni ere familia handi haren parte sentitzen nintzen. Ordutik nire bizitza, pertsona sagaratu batena, aldatu egin zen nire bokazioari buruzko erantzun aproposago batekin: Jaunarekin maiteminduagoa, eta santutasuna lortzeko desio handi batekin nire kontsakraziotik.

Zuk esperientzi asko edukiko duzu: merezi al du Kristorengatik bizitza ematea?

Noski baietz. Nik uste dut Harengatik dena ematea gauza ederrena dela. Kontenplazio bokazioa oso bizirik dago gaur egun ere. Beharrezkoa da bai bizitzan bai apostolutza mailan. Bakarrik jokaera kontenplatibo batetik izan daiteke errukitsua eta bihozbera.

Zerk bultza zintuen Jaungoikoari bizitza emateko?

Jainkoarekiko maitasun apartak eta apostolutzan santu bihurtzeko desioak. Bestetik, umeen sufrimenduak ikustea eta kaleetan eta ospitaleetan nola zeunden, izan zen niretzat erakargarriena.

Zer esango zenioke gazte bati bizitzari buruz?

Edertasuna, dirua eta plazerra bukatu egiten direla eta pertsona guztiak huts handi bat bizitzen dutela bizitza berekoia daramatenean. Nire esperientziatik merezi du Kristori jarraitzea, materialismo giro honetan. Munduak behar zaitu zure ausardia eta adore gaztearekin.

kanonizazioan-bizi-nuena-adierazteko/
(2025 Mar 28)